

prentsa-oharra

Berriztatzea 2021eko udan amaituko da

## ‘Estadio Berria’, kalitateko kirolaren erreferente berria Vitoria-Gasteizerako

- Estadio gunearen asmo handiko berriztatzeak hurrengo 50 urteetarako instalazioak eratuko ditu, eta erabilera anitzeko eskaintza lortuko da, kirol-joera berrietara egokitua
- Eraldaketak 2.300 m<sup>2</sup> gehituko dizkie instalazioei, kirol-jardueretarako, eta 25 metroko igerileku berria, kanpoko-bistak izango dituen *fitness* gimnasio berritzailea, egungoa lau aldiz den *spa* bat, osasun eta fisioterapia zentroa, 1.200 m<sup>2</sup>-ko kirol-terrazza berria eta aldagela zabalagoak eta erabat berrituak
- ‘Estadio Berriak’ eguneratu egingo ditu instalazio teknikoak, indarrean dagoen legediari egokitu zaio, baita Estadio Fundazioak hartutako ingurumen konpromisoei ere eta eraginkortasun energetikoa eta irisgarritasuna hobetuko ditu

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailak 19.-** Bere 60. urteurrenean, Estadio Fundazioak badu bere instalazioak hurrengo 50 urteetan izango direnaren proiektua. Erakundearen presidentek, Jon Urrestik, ‘Estadio Berria’ aurkeztu du gaur goizean, kirol-gunearen eraldaketa garrantzitsua, hausnarketa sakonaren emaitza, eta “mende erdi luzea abangoardian izan ondoren, kalitate, edukiera eta jasangarritasun bultzada berriari ekingo dio, eta berriz ere izango da Vitoria-Gasteizko kalitateko kirola gidatuko duen aitzindaria”.

Kirol-instalazioetan estalita zegoen ur-azalera zabaltzeko beharrezanetik sortu zen berriztatzea, baina, zenbait hilabete gaia sakon aztertzen eman ondoren, askoz harago doan proiektua onartzea erabaki da, eta Estadio XXI. mendeko kirol-erreferente izan dadila du helburu.

Horretarako, proposamen berriak klubaren erabilerak eta espazioak egituratu ditu, terrazen erabilera erraztu da, igerileku berria egingo da, baita 300 metro koadroko *spa* berria ere eta aldagela erabat irisgarriak, besteak beste. “Kirol-jarduerarako edukiera handiagoa emango



diogu, lehorreko disziplinetarako nahiz hezeetarako, eta erabilera eta ondo pasatzea erraztuko diegu bazkideei, kirol-jarduerarako **2.300 m<sup>2</sup>** gehiago gehituta”, esan du Urrestik.

Horrela, **Vital Fundazioan** integratuta dagoen 40.000 m<sup>2</sup>-ko kirol-gune erraldoi honen hainbat tokitan helduko zaio lanari. Igerileku estalien eraikinaren zabalkuntzak Estadioaren irudia bateratuko du, dauden eraikinak lotuko dituelako eta kanpoko hainbat plataforma eta eskailera sortuko ditu, orain apenas erabiltzen diren terrazak erraz erabili daitezten.

Eraikin berriaren beheko solairuak, fatxadarekin batera, **kirol-gune lehorrak** bilduko ditu, eta argitasun eta bentilazio naturala emango die, altuera handiagoa eta lorategietarako bistak emateaz gain. 1.400 m<sup>2</sup>-ko espazio berriak, erabilera malgutasun gorenarekin, banaketa mugikorren sistema baten bitartez, 82 metro luze izango duen **fitness gimnasio berritzailea** hartuko du barne, dena kanpora begira, hau da, “Lurraldeko beste kirol-instalazioek ez duten berrikuntza handia”, adierazi du Fundazioaren presidentek. Baina, batez ere, lan eta jarduera aukerak biderkatzen ditu, erabateko bentilazioa dauden instalazio berrietan, eta kirola egiteko era berrietara bideratutako disziplina berriak sartzea ahalbidetzen duten azken belaunaldiko teknologiek.

**Kirol-gune hezeak** lehenengo solairuan elkartuko dira. Hortxe kokatuko da 25 metroko igerileku berria, gaur egun dagoena ere berrituko da, hori ere 25 metrokoa, gainezka egiten duen ur-azala duena, eta 300 m<sup>2</sup>-ko *spa* berria egingo da. Ikasteko igerilekuaren eginkizuna gazteen eraikineko igerilekura eramango da (pinguinoak), igerileku hori erabilera berrirako egokituko baita, hartara, erabiltzaile gazteenak eraikin berean elkartzeko ahalegina egingo da. Gainera, igerilekuen instalazio guztia izango da iraunkorragoa ingurumenari dagokionez, eta batez ere, “igerileku estalian gaur egun dagoen bero eta kloro giroa erabat aldatuko da, eta giro berria osasungarriagoa, higienikoagoa eta erosoagoa izango da”.

Eraikinaren bigarren solairua guztiontzako irisgarria izango da, igogailu berri biren bidez, eta bake eta isiltasun handiagoa behar duten erabiltzaileentzat izango da: 230 m<sup>2</sup> yoga edo pilates geletarako, *boulder* gune bat eta 135 m<sup>2</sup> **osasun eta fisioterapia zentro berri** baterako. Solairu hau igerileku-guneen gainera iraultzen da eta komunikazio zuzena izango du, bai *spa*-rekin, bai kirol-gune lehorrekin, bai kanpoko aldearekin.

Hobekuntza horiek, azaldu du Urrestik, “ur-azalera handiagoaz gozatzeko aukerak zabalduko dituzte eta ur barruko kirol-jarduera berriak erraztuko dituzte, gaur egun ditugun 25 metroko igerileku estaliak bikoizteaz gain”. Era berean, *spa* berri eta zabalak lauhoiztu egingo ditu gaur

egun eskaintzen diren aukerak. Behin jarduera fisikoa amaituta, abonatuak erlaxatu daitezen lagunduko du, eta lesio txikien errehabilitazioa ere egingo da.

**Aldagelak**, bere aldetik, eraikinaren barruko aldera eramango dira, erabat irisgarriak izango dira eta hiru gune izango dituzte: familientzako, emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako. Gainera, gaur egungoek baino 250 m<sup>2</sup> gehiago izango dituzte eta komunikazio zuzena kirol-gune lehorrekin nahiz igerilekuekin eta *spa* zerbitzu berrieekin. “Hartara, erantzuna emango diogu abonatuaren eskaera garrantzitsuenetako bati”.

Igerileku estalien gaur egungo solariuma 1.200 m<sup>2</sup>-ko **kirol-terraza berria** izango da. Udaldian bere erabilerari eutsiko dio, baina, gainerako urte garaietan, eguraldiak uzten badu, aire zabaleko jarduerak egiteko erabiliko da eta sarbide zuzena izango du aldagelen gune berritik.

Azkenik, bulegoak, bilera-gelak eta Estadio Aretoa **eraikin sozialera** eramango dira, eta gainera, **coworking eremua** ere egingo da bertan, “bazkideekiko elkarrekintza erraztuko du eta erabilerak zehaztu, kirol-eraikin nagusia edo igerilekuena kirol-erabileretarako baino ez baitira izango”.

Uraren eta airearen kalitateaz arduratzen diren **instalazio teknikoak** gaurkotzea ere aurreikusi du ‘Estadio Berria’ proiektuak, izan ere, 50 urte luzeko erabileraren ondoren haien balio-bizitzaren azkenetan daude, eta ondorioz, indarrean dagoen araudiari eta Estadio Fundazioak hartu dituen **ingurumen konpromiso**ei egokitu behar zaizkie.

Fatxada berriak, Estadiorako irudi berritua eratzeaz gain, bere **eraginkortasun energetikoa** hobetuko du, klimatizaziorako kontsumoa murriztuko duelako eta gune hezeetan gaur egun dauden kondentsazioak ekidingo dituelako. Era berean, eguzki-plaken gune berria instalatzea aurreikusi da, baita argizatze naturala hobetzea ere, sabai-leiho eta irekidura berrien bidez.

Estadio Fundazioak bulego teknikoak izango du bere egoitzan, berritze-lanen egoerari buruzko informazioa emateko eta, gainera, kirol-gunea berriztatzen den bitartean bisitaldiak egitea ere aurreikusi da. Halaber, atari bat gaituko da bere webgunean, berritze-lanen egoera denbora errealean jarraitu ahal izateko eta galderak egin ahal izateko, eta proiektuari buruzko *workshop*-ak ere antolatuko dira.

## Kronograma eta inbertsioa

1. fasea	19ko abe. – 20ko ots.	Bulego berriak Pinguino-igerilekuaren egokitzapena	348.000 €
2. fasea	20ko uzt. – 21eko uzt.	Eraikin zentrala birmoldatzea	4.346.000 €
3. fasea	20ko mar. – 21eko uzt.	Instalazio teknikoak eguneratzea	1.470.000 €
			Guztira 6.164.000 €